

- ✓ Koloneko minbizia tumorerik ohikoenetako bat da Nafarroan
- ✓ Garaiz detektatzen bada, kasuen % 90etik gora senda daitezke
- ✓ Koloneko minbizia garaiz detektatzeko programak tumorea garaiz diagnostikatzeko proba erraz bat egiteko aukera ematen du
- ✓ Programa zure bizitoki-barrutira iristen denean, 50-69 urte bitarte baduzu, gutun pertsonalizatua jasoko duzu
- ✓ Kasu egin gonbidapenari.
Test bat aski izan daiteke zure bizia salbatzeko

HAUTA90

KOLONEKO MINBIZIA
GARAIZ DETEKTATZEKO
PROGRAMA

Argibideak:

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
Koloneko minbizia garaiz detektatzeko programa

Francisco Bergamín 2 bis. 31003 Iruña

Tel.: 848 42 34 98

precolon@navarra.es

www.cancercolon.navarra.es

HAUTA90

KOLONEKO MINBIZIA
GARAIZ DETEKTATZEKO
PROGRAMA

www.cancercolon.navarra.es



HAUTA90

KOLONEKO MINBIZIA
GARAIZ DETEKTATZEKO
PROGRAMA



DL NA 1783-2013



KOLONEKO MINBIZIA

Zer da?

Polipo izeneko lesio baten ondorioz heste lodian edo ondestean sortzen den **tumore gaiztoa** da.

Zein maiztasunaz agertzen da?

Nafarroan, tumorerik ohikoenetako bat da. Emakumeen artean bigarrena da, bularreko minbiziaren ondotik, eta gizonen artean hirugarrena, prostatako eta biriketako minbizien ondotik.

Ohikoagoa da familian koloneko edo ondesteko minbiziaren aurrekariak dituztenen artean, bai eta hesteen hanturagatiko eritasun kronikoak edo polipoak dituztenen artean ere.

Egoera horiek gorabehera, 50 urtetik aitzina arriskua handitzen da.

Zein dira sintomak?

Hasierako faseetan ez da sintomarik izaten, oro har, baina sintoma susmagarritzat jo behar dira kakarekin batera odola botatzea, hesteek ohi bezala ez funtzionatzea eta arrazoirik gabe mehetzea.

Badago prebenitzeko modurik?

Minbizia izateko arriskua txikiagoa da fruta eta barazki asko eta animalia-jatorriko gantz gutxi kontsumitzen bada, eta ariketa fisikoa egiteko ohitura badago. Horretaz gainera, komeni da gehiegizko pisua eta obesitatea saihestea eta tabakorik eta alkoholik ez kontsumitzea.

Badago sendatzeko aukerarik?

Garaiz harrapatuz gero, errazagoa da tratatzea eta sendatzeko aukerak handitzen dira. **Diagnostiko goiztiarreko kasuen % 90etik gora senda daitezke.** **Fase aurreratuetan** diagnostikatzen bada, ordea, bizirauteko aukerak % 50 baino gutxiagora murrizten dira.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak **Koloneko minbizia garaiz detektatzeko programa** jarri du abian, eta eritasuna garaiz detektatzeko proba dohainik egiteko aukera ematen du.

KOLONEKO MINBIZIA GARAIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA

Norentzat da?

Nafarroan bizi diren **50-69 urte arteko** gizon-emakume asintomatiko guztientzat.

Programa Nafarroako lurralde osoan zabalduko da pixkana. Datozen bi urteetarako egutegia hemen ikus dezakezu: www.cancercolon.navarra.es

Hitzordurik eskatu behar al da?

Ez. Programa zure bizitoki-barrutira edo osasun-etxera iristen denean, etxean jasoko duzu **gonbidapen pertsonalizatua**, txartel batekin batera, proba egin nahi ote duzun adieraz diezaguzun.

Itxoin gonbidapen-gutuna iritsi arte. Programan sartzen diren pertsona guztien azterketa bermatzeko modu bakarra da. Dena dela, edozein unetan anomaliarik nabaritzen baduzu, esan zure medikuari, arren, ahalik eta lasterren.

Nolakoa da testa?

Kaketan **odolik ote den ikusteko** proba da, ez baita begi hutsez ikusten. Oro har, bi urtetik behin eginen da.

Gonbidapena jasotzean proba egin nahi duzula baieztatzen badiguzu, etxean jasoko duzu testa, lagina hartzeko modua azaltzen duten jarraibideekin batera. Bete ondotik, **zure osasun-etxean aurkeztu beharko duzu.** Egun batzuen buruan jasoko duzu emaitza.



Zer adierazten du proba positiboak?

Kalkuluen arabera, proba egiten duten 1.000 pertsonatik 70 inguruk positiboa emanen du, baina 3k baizik ez du minbizirik izanen. 3 positibotik 1ean, kaketako odola polipo onberen ondorio izanen da, eta horiek ere tratatu beharko dira etorkizunean minbizirik ez izateko.

Odola nondik datorren jakiteko, kolonoskopia bat egin beharko da. **Kolonoskopia** heste barneko azterketa da, sedazio bidez egiten dena minik ez egiteko. Hari esker, odoljarioa eragin duten lesioak ikusi, detektatu eta kentzen ahalko dira.

Diagnostiko eta tratamendu goiztiarrak pronostikoa hobetzen du, bai eta handitu ere eritasuna sendatu eta kontrolatzeko aukerak.